



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2016/10/23

Bizkaibusen erabilereak %2,3 egin eban gora abuztura arte

Vicente Reyes Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesinorako Foru Diputatuak, aurtongo Bizkaibuseko erabilerearen gaineko datuak emon ditu gaur Bizkaiko Batzar Nagusietan. Bertan adierazo dauenez, errepideko garraio publikorako foru zerbitzuak “%2,3ko” igoera izan dau abuztura arte, 2015eko lehenengo zortzi hilebeteakaz alderatuta.

Aldundiko arduradunak, Batzarretako EH Bilduko taldeak eskatuta Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesinorako batzordean egin dauen agerraldi publikoan eskini dau datu hori. Koalitzino abertzaleak 2015ean izandako bidaiarien galerearen gainean galdetu deutso, Bizkaiko Garraio Partzuergoak (BGP) egin dauen txostenak erakusten dauenez, Bizkaibuseko lineek “1,17 milioi erabiltzaile” galdu ebezalako igaz aurreko urteagaz alderatuta, hau da, “%4,3ko” jatsierea izan eben. Zigor Isuskiza batzordekidearen eretxiz, “paradojiko” da hori gertatea kilometro gehiago –“72”– egiten diranean, eta aurrekontuak eta linea kopuruak gora egin dabenean.

Reyesek esan dauenez, jatsiera hori, zergaiti bik eragin daben egoera “koiunturala” dala eta gertau zan. Alde batetik, Basauriko metroaren lanzadera kendu izana, hori dala eta igaz “917.267” bidaiari gitxiago izan ziralako. Eta, bestetik, Bizkaibuseko linea bi, 3139 Regato-Barakaldo eta 3216 Bilbo-Artxanda Udalen esku geratzea, horrek beste “131.484” bidaiari gitxiago egotea eragin ebalako.

Gaur egungo lineen portaerari jagokonez, Reyesek esan dauenez, 2014an eta 2015ean izandako beherako joerea aurtun “aldatuz doala” ikusten da, abuztura arte jaso diran datuak kontuan izanda, baina zuhur jokatu gura izan dau, eta sistemak urtearen bukaeran izan dauen funtzionamendua ikusi, azterketa “zorrotzagoak” egin ahal izateko.

Foru diputatuak, bere eretxiz Bizkaibusek “lurraldea egituratzeko elementu” moduan dauen garrantzi handia erakusten daben hainbat datu be eskini ditu. Une honetan, Aldundiaren esku dagozan lineek 2.303 km-ko sarea hartzen dabe, Euskotren (92 km), Bilbobus (171) edo Metro Bilbao (43) moduko beste operadore batzuk baino askoz gehiago eta, hori dala eta, kilometro gehien egiten dauen garraio publikoa da eta, ondorioz, “galera gehien sortzen dituan”. Aldundiak Bizkaibus eusteko egiten dauen esfortzu ekonomikoari esker –“79 milioi euro”–, “Bizkaiko biztanleriaren %90 baino gehiagok euren etxeetatik 5 minutu baino gitxiagora” Aldundiaren autobus bat hartu daike.

MARKESINA EREDU BARRIA

Horren ostean, Vicente Reyes Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesinorako Foru Diputatuak, berak eskatutako beste agerraldi batean, datorren urtetik aurrera Bizkaiko errepideetan ikusten hasiko dan markesina eredu barria aurkeztu dau. Markesina barriak, beharren arabera instalauko dira, gaur egungoen “stocka” amaitu eta gero.

Aldundiaren esku dagozan autobusen etorkizuneko geralekuak “modulagarriak, erosoak, irisgarriak eta ikusgaitasun handia emoten dabena” izango dira, egurra, beira edo altzairu



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

herdoilduezina moduko material “iraunkorrakaz” egindakoak, eta horrek “modernotasun” ukitua emongo deutse, diputatuak azaldu dauenez. Sabaia serigrafiatutako haretx hostoakaz egongo da eginda, udan gerizpea emoteko eta aldi berean argiari igaroten izteko, eta euriaren ura batzeko sistema izango dabe, “itoginik egon ez daiten”.

Markesinek egurrezko hiru eserleku, burpildun aulkientzako lekua eta euskarri “iskiatikoa” izango ditue. Argiztapena estalgian egongo da integrauta, “led” argiz osatutako sistemeagaz, energiaren kontsumoa murriztu ahal izateko, eta publizitatea eta informazioa jasoteko hainbat euskarri izango ditue. Alboko panel batean unidadeak igaroteko denporea adierazoten daben idazkunak jarteko lekua egongo da, “baina momentuz ez da holangorik instalauko, oso garestiak diralako”, “3.500 eta 4.000 euro” artean bakotxa, eta telefono mobikorren erabilera eta hobekuntzea dirala eta, informazino hori modu merkeagoan emoteko aukerea dagolako.

Reyesek aurreikusi dauenez markesina bakotxak 15.000 euro inguru balioko ditu, gaur egungoak baino 2.000 euro gitxiago. Prezio hori “merketu” egin daiteke, edozein enpresak bere eskintzak aurkeztu ahal izango ditualako lizitazioa egiten danean. Holan, markesinak ez ditu enpresa bakarrak egingo, une honetan gertetan dan moduan.

Markesina barriak “apurka-apurka” instalauko dira, datorren urtetik aurrera, “behar dan lekuetan”, baina aurretik, gaur egungo diseinua daben pieza guztiak amaitu beharko dira, eta kontuan izan behar da horreek be “zati baterako” egongo dirala, zehaztu dau.

Batzarretako taldeak, orokorrean, pozik agertu dira aurkeztutako diseinuagaz, baina zenbait hobekuntza sartzeko aukerea baloretako animau dabe Aldundia. Arturo Aldecoak (Talde Mistoa), eserleku iskiatikoak luzatzea edo haize asko egiten dauen lekuetarako eredu itxia diseinetea posible ete dan aztertzea eskatu dau. Nuria Atienzak (Podemos), markesina barriek, ikusten ez daben pertsonentzako “ahotsezko sistema” eroango ete daben galdetu dau. Zigor Isuskizak (EH Bildu) mantentze-lanen gaia aitatu dau, egurra erabilten dalako.

Joaquín Colmenero batzordekide sozialistak, bere aldetik, diputatua zoriondu dau, txostena aurkeztean Batzarren agindua bete dauelako. Eta Unai Lerma jeltzaleak azpimarratu dauenez, eredu barria egitea eta mantentzea “errezagoa” izango da, eta horrek eragina izango dau prezioan, Aldundia ez dalako enpresa bakarraren “eskuetan” egongo.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
23/10/2016

El uso de Bizkaibus creció un 2,3% hasta agosto

El diputado foral de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio, Vicente Reyes, ha ofrecido hoy en las Juntas Generales de Bizkaia datos sobre el uso de Bizkaibus durante este año, en donde hasta el mes de agosto, el servicio foral de transporte público por carretera había experimentado un crecimiento del “2,3%”, con respecto al mismo periodo de 2015.

El responsable foral ha ofrecido este dato en una comparecencia pública en la comisión de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio, solicitada por el grupo juntero EH Bildu. La coalición abertzale le ha preguntado por la pérdida de viajeros en 2015 en base a un informe del Consorcio de Transportes de Bizkaia (CTB), que reflejaba un descenso de “1,17 millones de usuarios” respecto al año precedente, lo que suponía una merma del “4,3%”. Para el apoderado Zigor Isuskiza, es “paradójico” que esto ocurra cuando se recorren más kilómetros -“72 más”- y cuando ha habido “un aumento de presupuesto y de líneas”.

Reyes ha asegurado que dicho descenso se debe a una situación “coyuntural” provocada por dos motivos. Por un lado, la supresión de la lanzadera del metro de Basauri que provocó que se dejaran de contabilizar el año pasado “917.267” viajeros. Y, por otro, el paso de dos líneas de Bizkaibus, la 3139 El Regato- Barakaldo y la 3216 Bilbao-Artxanda, al ámbito municipal, lo que redujo en otros “131.484” viajeros la cifra total.

En relación al comportamiento de las líneas actuales, Reyes ha manifestado que se vislumbra este año que “ha cambiado” la tendencia descendente experimentada en 2014 y 2015, a tenor de los datos acumulados hasta agosto, aunque ha querido ser prudente y ver el funcionamiento del sistema de transporte a final de año para ser “más certeros” en los análisis.

El diputado foral ha ofrecido también algunos datos que indican para él la enorme importancia que tiene Bizkaibus como “elemento de vertebración del territorio”. Actualmente, las líneas forales cuentan con 2.303 kilómetros de red, muy por encima de otros operadores como Euskotren (92 km), Bilbobus (171) o Metro Bilbao (43), lo que hace que sea el transporte público que más kilómetros recorre y, por consiguiente, “el más deficitario”. El esfuerzo económico que realiza la Diputación para mantener Bizkaibus -“79 millones de euros”- sirve, entre otras cosas, para que “más del 90% de la población de Bizkaia”, tenga un autobús foral a “menos de 5 minutos de sus domicilios”.

NUEVO MODELO DE MARQUESINAS

El diputado foral de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio, Vicente Reyes, ha presentado después, en otra comparecencia solicitada a petición propia, el nuevo modelo de marquesinas que comenzará a verse por las carreteras de Bizkaia a partir del año próximo, según las necesidades y tras agotarse previamente el “stock” de las actuales.

La futura parada de los autobuses forales será “modulable, cómoda, accesible y con mucha visibilidad”, ha manifestado, fabricada con materiales “sostenibles” como la madera, el vidrio o



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

el acero inoxidable que le darán un toque de “modernidad”. Tendrá un techo con hojas de roble serigrafiadas para dar sombra en verano, al tiempo que permitirá el paso de la luz. Un sistema de recogida de agua de lluvia “evitará las goteras”.

Las marquesinas dispondrán de tres asientos de madera, un espacio para sillas de rueda y un soporte “isquiático”. La iluminación estará integrada en la cubierta con un sistema de luces “leds” con el fin de reducir el consumo energético, y habrá diferentes soportes para incluir publicidad e información. Uno de los paneles laterales dejará sitio para instalar letreros indicativos del tiempo de paso de las unidades, que “no se van a colocar de momento por su alto coste”, entre “3.500 y 4.000 euros” cada uno. El uso y mejora de los móviles facilita dar esta información de una forma más económica.

Reyes ha estimado que cada marquesina costará unos 15.000 euros, dos mil menos que las actuales. Este precio “podría ir a la baja”, ya que cualquier empresa podrá presentar sus ofertas en una futura licitación. El nuevo diseño permite que se elimine la “supeditación” a una única empresa suministradora como sucede en la actualidad.

La incorporación de las nuevas marquesinas se producirá “progresivamente” a partir del año próximo “donde sea necesario”, aunque antes se terminarán de reponer las piezas existentes. Las marquesinas actuales “estarán para rato”, ha advertido.

Los grupos junteros han mostrado, en líneas generales, su satisfacción por el diseño presentado si bien han animado a la Diputación a que valore la introducción de algunas mejoras. Arturo Aldecoa (Mixto) ha pedido que se analice si es posible alargar los asientos isquiáticos o diseñar un modelo cerrado para ubicaciones en donde sople mucho viento. Nuria Atienza (Podemos) ha preguntado por si las nuevas marquesinas llevarán un “sistema de voz” para personas invidentes. Y Zigor Isuskiza (EH Bildu) ha preguntado por el mantenimiento de la madera.

Por su parte, el apoderado socialista Joaquín Clmenero ha felicitado al diputado por cumplir un mandato de las Juntas con la presentación del informe. Por último, el jeltzale Unai Lerma ha destacado que el modelo será de fabricación y mantenimiento “más fácil”, lo que redundará en el precio, ya que la Diputación “no estará cautiva” de una sola empresa.